12. SISTEMAREN KONPLEXUTASUNA MURRIZTEA, BEREZIKI ERABILTZAILEEN IKUSPEGITIK, ESKAEREN IZAPIDETZE ARINAGOA AHALBIDETUKO DUTEN ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO FORMULAK GARATUZ

12. REDUCIR LA COMPLEJIDAD DEL SISTEMA, ESPECIALMENTE DESDE EL PUNTO DE VISTA DE LAS PERSONAS USUARIAS, DESARROLLANDO FÓRMULAS DE GESTIÓN ADMINISTRATIVA QUE PERMITAN UNA TRAMITACIÓN MÁS ÁGIL DE LAS DEMANDAS

13. ZERBITZUEN KALITATEA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETU DADIN SUSTATZEA, I+Garen JARDUEREN BITARTEZ ETA JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATUZ KUDEAKETAN ETA ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAN

13. PROMOVER LA MEJORA DE LA CALIDAD Y LA EFICIENCIA DE LOS SERVICIOS MEDIANTE LAS ACTIVIDADES DE I+D Y LA POTENCIACIÓN DE LAS BUENAS PRÁCTICAS EN LA GESTIÓN Y LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS

14. GIZA BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA FABORATZEA, PRODUKTIBITATEA HOBETUZ ETA ZAINTZA KALITATE HANDIAGOZ GAUZATZEA AHALBIDETUZ

14. FAVORECER UN APROVECHAMIENTO DE LOS RECURSOS HUMANOS, MEJORANDO LA PRODUCTIVIDAD Y POSIBILITANDO UNA MAYOR CALIDAD DE LA ATENCIÓN

15. GIZARTE LARRIALDIKO EGOEREI ARRETA ESKAINTZEA

15. ATENDER A SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL

16. ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUAK EMATEN ESKU HARTZEN DUTEN PERTSONA GUZTIEI LAN BALDINTZA EGOKIAK EMAN DIEZAZKIETEN SUSTATZEA, INGURUNE IRAUNKOR BATEAN

16. PROMOVER UNAS CONDICIONES LABORALES ADECUADAS, EN UN ENTORNO SOSTENIBLE, A TODAS LAS PERSONAS QUE INTERVIENEN EN LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS SOCIALES DE RESPONSABILIDAD PÚBLICA

17. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA GARATZEKO BEHARREZKOAK DIREN BARNE EGITURAK FINKATZEA

17. AFIANZAR LAS ESTRUCTURAS INTERNAS NECESARIAS PARA EL DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

18. HERRITARREK, ETA BEREZIKI, ERABILTZAILEEK GIZARTE ZERBITZUEN POLITIKEN GARAPENEAN PARTE HARTZEKO BIDEAK HEDATZEA, ETA ERABILTZAILEEK PROTAGONISMO MAILA HANDIAGOAK LORTZEA GIZARTE ZERBITZUEN POLITIKEI DAGOKIENEZ EZ EZIK BALIABIDEAK SORTZEARI ETA HORIEN FUNTZIONAMENDUARI DAGOKIONEZ ERE

18. EXTENDER LOS CANALES PARA LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y, EN ESPECIAL, DE LAS PERSONAS USUARIAS EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS DE SERVICIOS SOCIALES Y ALCANZAR MAYORES COTAS DE PROTAGONISMO DE LAS PERSONAS USUARIAS NO SÓLO EN LAS POLÍTICAS DE SERVICIOS SOCIALES SINO EN LA CONCEPCIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LOS RECURSOS

19. GUNE SOZIOSANITARIOAREN ERAIKUNTZA AMAITZEA ETA GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA

19. CULMINAR LA CONSTRUCCIÓN DEL ESPACIO SOCIOSANITARIO Y MEJORAR LA COORDINACIÓN ENTRE LOS SERVICIOS SOCIALES Y LOS DE SALUD

20. ENPLEGU ZERBITZUEKIN EGITEN DEN SARE LANA HOBETZEA

20. MEJORAR EL TRABAJO EN RED CON LOS SERVICIOS DE EMPLEO

21. BESTE SISTEMA BATZUEKIKO (JUSTIZIA, ETXEBIZITZA, GARRAIOA, ETA ABAR) KOORDINAZIOA HOBETZEA, GIZARTE ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZTEN KOLEKTIBOEN PREMIEN ZEHARKAKOTASUNA HANDIA DELAKO

21. MEJORAR LA COORDINACIÓN CON OTROS SISTEMAS (JUSTICIA, VIVIENDA, TRANSPORTE…) DADA LA TRANSVERSALIDAD DE LAS NECESIDADES DE LOS COLECTIVOS ATENDIDOS POR LOS SERVICIOS SOCIALES

22. ARAU ESPARRUA ZEHAZTEA, IRABAZI ASMOA DUTEN ETA IRABAZI ASMORIK EZ DUTEN ERAKUNDE PRIBATUEK ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZUAK EMATEKO

22. DEFINIR EL MARCO REGULADOR PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE RESPONSABILIDAD PÚBLICA POR PARTE DE LAS ENTIDADES PRIVADAS CON Y SIN FIN DE LUCRO

BETETZE MAILA

1. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA HOMOGENEOA ZIURTATZEA EAE OSOAN, HERRITAR GUZTIEI BERDINTASUNA BERMATUZ SISTEMAKO ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK LORTZEKO

Gizarte-zerbitzuen alorrean, araugintza-lanarekin jarraitu da 2013. urtean. Eman diren arau gehienak abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuena, garatzeko eman dira. Hala, garapen-dekretu hauek egin eta eman dira adierazitako urtean:

- 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa. (2013/06/26ko EHAA)
- 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena. (2013/08/07ko EHAA)
- 424/2013 Dekretua, urriaren 7koa, gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzkoa. (2013/10/18ko EHAA).

Horrez gainera, arau hauek egiteko edo izapidetzeko prozesuarekin jarraitu da:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroaren dekretua: beste dekretu-proposamen bat aurkeztu zitzaion Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoari, eta alegazio-fasea igaro zuen.
- Hitzarmen-dekretua: prestatze-bidean da, baina Europan 2014rako iragarri diren aldaketak barneratu zain dago.
- Koordainketako dekretua edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman doakoak ez diren prestazioak eta zerbitzuen finantzazioan ordaintzeko betebeharra duten pertsonen partaidetza ekonomikoari buruzko dekretua: aurreko legegintzaldian egin zen proiektua bertan behera uzteko sailburu-agindua idatzi da, eta beste espediente bat abiatu da, dekretuaren bertsio berri batekin.
- Foru-aldundiek adingabekoak adoptatzeko gai-alorrean bete behar duten jarduera-prozedura arautzen duen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretua: Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenaren zain dago, gerora Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora igortzeko.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuko dekretua: 2012ko abenduaren 3an eman zen abiatze-agindua. Geldiarazi egin da haren tramitazioa, zerbitzuen zorroari buruzko dekretuak baldintzatuko baitu haren edukia.

GRADO DE CUMPLIMIENTO

1. ASEGURAR UN SISTEMA HOMOGÉNEO DE SERVICIOS SOCIALES EN TODA LA CAPV, QUE GARANTICE LA IGUALDAD A TODA LA CIUDADANÍA EN EL ACCESO A LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES DEL SISTEMA

Durante el ejercicio 2013 se ha dado continuidad a la labor normativa en materia de servicios sociales, fundamentalmente derivada del desarrollo de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, lo que se concretó en la elaboración y aprobación de los decretos de desarrollo siguientes:

- Decreto 353/2013, de 28 de mayo, de Ficha Social del Sistema Vasco de Servicios Sociales y del instrumento de diagnóstico social del Sistema Vasco de Servicios Sociales. (BOPV 26/6/2013).
- Decreto 385/2013, de 16 de julio, por el que se aprueba el instrumento de valoración de la exclusión social. (BOPV 7/08/2013).
- Decreto 424/2013, de 7 de octubre, sobre la declaración de interés social de las entidades sin ánimo de lucro de servicios sociales. (BOPV 18/10/2013).

Además, se procedió a la elaboración o se continuó la tramitación de las normas siguientes:

- Decreto de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales: en 2013 se presentó ante el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales (OISS) una nueva propuesta de decreto, que se sometió a alegaciones.
- Decreto de Concertación: su elaboración está en curso, pero pendiente de los cambios que se anuncian en esta materia desde Europa para comienzos de 2014.
- Decreto de Copago o Decreto sobre la participación económica de las personas obligadas al pago en la financiación de las prestaciones y servicios no gratuitos del Sistema Vasco de Servicios Sociales: se ha elaborado la Orden del Consejero de desistimiento del proyecto existente en la pasada legislatura y se ha comenzado un nuevo expediente con una nueva versión de Decreto.
- Decreto de segunda modificación del Decreto por el que se regula el procedimiento de actuación que deberán seguir las Diputaciones Forales en materia de adopción de personas menores de edad: pendiente de emisión de informe por parte de la Oficina de Control Económico para la posterior remisión a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.
- Decreto del Servicio de Ayuda a Domicilio: se dictó orden de inicio el 3 de diciembre de 2012. Su tramitación está paralizada, ya que su contenido depende del decreto de cartera.

- Arreta goiztiarreko dekretua: Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoaren irizpena (2014/01/22) eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren irizpena (2014/01/27) jasoko du dekretuaren zirriborroak.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazio Sistemaren Dekretua: abiatzeko agindua eman zen 2012ko abenduaren 3an. Txosten juridikoa eman du Zerbitzuen Zuzendaritzak. Arau horren tramitazioa egiteko baldintza da aldez aurretik bermatzea sistema horren eta foru-aldundien sistemen arteko elkarreragingarritasuna, baina zehaztu gabe dago oraindik alderdi hori.
- Egoitza-zentroen dekretua ezintasunak dituzten pertsonentzat: hasierako dokumentua osatu da, eta agiri horrekin ekingo zaio administrazio-prozedurari.
- Eguneko zentro eta okupazio-zentroen dekretua ezintasunak dituzten pertsonentzat: hasierako dokumentua osatu da, eta agiri horrekin ekingo zaio administrazio-prozedurari.

Gizarte-zerbitzuen plangintza egiteko eskumena ematen dio 12/2008 Legeak Eusko Jaurlaritzari. Horri dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak aurreikusi du 2014-2016 eperako eguneratzea Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa. Azken plan hori 2013. urtean ondu da, gure eskumenak baliatuz eta foru-aldundiekiko eta udalekiko koordinazioa landuz.

Ez da Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu oraindik, baina bere baitan jaso behar du memoria ekonomikoa. Memoria horrek zehaztu behar ditu, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoak eta Zorroak izango dituen prestazioak, bai zerbitzuak ezartzen joateak eragingo dituen kostu ekonomikoen aurreikuspenak.

Plana 2014an onartuko dela aurreikusten da.

## 2. KALITATEZKO GIZARTE ZERBITZUAK SUSTATZEA, EUSKO JAURLARITZAREN ZUZENEKO ERANTZUKIZUNEKO ESPARRUETAN

Zenbait jarduera egin dira ekintza zuzeneko zerbitzuaren eta beste zerbitzu batzuen kudeaketaren alorrean.

Familia-bitartekaritzako zerbitzuak ekintza zuzeneko zerbitzu izendatu dira, eta zerbitzu horiek 1.055 familia hartu dituzte, 454 familia Bizkaian, 454 familia Araban eta 413 Gipuzkoan.

Telelaguntzako zerbitzu publikoak 30.393 erabiltzaile zituen 2013ko abenduaren 31n, eta haren estaldura %6,99koa zen 65 urtetik gorako pertsonen artean. Guztira, aurretiko 8.358 hitzordu egin dira Osakidetzarekin eta osasun-aholkuko 16.676 telefono-kontsulta egin dira.

Abenduaren 27ko 277/2011 Dekretua, Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzaileen akreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituena, onartu eta indarrean jarri ondoren, espedienteak tramitatzeko akreditazioari eusten diote honako erakunde hauek: ASEFA erakundeak

- Decreto de Atención Temprana: el borrador será sometido a informe del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales (22/1/2014) y del Consejo Vasco de Servicios Sociales (27/1/2014).
- Decreto del Sistema de Información de Servicios Sociales: se dictó orden de inicio el 3 de diciembre de 2012. Emitido el informe jurídico de la Dirección de Servicios. Su tramitación está condicionada a la previa garantía de la interoperabilidad entre ese Sistema y los de las Diputaciones Forales, algo aún por determinar.
- Decreto de centros residenciales para personas con discapacidad: se dispone del documento inicial a partir del cual se seguirá el procedimiento administrativo.
- Decreto de Centros de Día y ocupacionales para Personas con Discapacidad: se dispone de documento inicial a partir del cual se seguirá el procedimiento administrativo.

La Ley 12/2008 otorga al Gobierno Vasco la función de la planificación en materia de servicios sociales. Al respecto, la Dirección de Servicios Sociales tiene previsto actualizar el Plan Estratégico de Servicios Sociales para el periodo 2014-2016, Plan que se ha estado elaborando en 2013 en el ejercicio de nuestras competencias de coordinación con las Diputaciones Forales y los ayuntamientos.

El Plan debe incluir el Mapa de Servicios Sociales, que todavía no está aprobado, y su correspondiente memoria económica, la cual deberá definir las previsiones de coste económico asociadas a la implantación progresiva de las prestaciones y servicios previstos en el Catálogo y la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

La previsión es aprobar el Plan en 2014.

## 2. PROMOVER SERVICIOS SOCIALES DE CALIDAD EN AQUELLOS ÁMBITOS DE RESPONSABILIDAD DIRECTA DEL GOBIERNO VASCO

En la gestión de los servicios determinados como de acción directa se ha llevado a cabo diversas actuaciones.

Los Servicios de Mediación Familiar declarados como de acción directa han antendido a 1.055 famlias de las que 454 son de Bizkaia, 454 de Álava y 413 de Gipuzkoa.

El servicio público de teleasistencia contaba, a 31 de diciembre de 2013, con 30.393 usuarios/as, con una cobertura del 6,99% entre las personas mayores de 65 años. Se han computado 8.358 citas previas con Osakidetza y 16.676 consultas telefónicas de consejo sanitario.

Como consecuencia de la aprobación y entrada en vigor del Decreto 277/2011, de 27 de diciembre, de acreditación y funcionamiento de las Entidades Colaboradoras de Adopción Internacional, en la Comunidad Autónoma del País Vasco mantienen la

Kolonbia, Errusiar Federazio eta Dominikar Errepublikarako; MIMO erakundeak Bulgaria eta Hungariarako eta AIPAME erakundeak Errusiar Federaziorako.

acreditación necesaria para la tramitación de expedientes en diferentes países las Entidades ASEFA, para Colombia, Federación Rusa y República Dominicana; y MIMO, para Bulgaria y Hungría y AIPAME para la Federación Rusa.

Formatu berri batean banatzen jarraitu dira ezintasunak dituzten pertsonentzat ematen diren aparkatze-txartelak. Haiek faltsutzea zailtzen du formatu berriak. Udalerriek ez dute kexarik edo salaketarik jarri 2013. urtean gai horri dagokionez.

Se han seguido distribuyendo las tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad con un nuevo formato olografíado que dificulta su falsificación. En el año 2013 no hemos recibido ninguna queja ni denuncia por parte de los municipios al respecto.

INGEMA fundazioarekin izenpetu den hitzarmenaren baitan, irakaskuntza-jardueren multzo bat egin da, hamabi ikastaro eta prestakuntza-programa pilotu, guztira. Horien bidez, prestakuntza eman zaie gizarte-zerbitzuetako profesionalei, askotariko gai-alorretan: pertsonengan ardaztutako arreta, gerontologiako gizarte-interbentzioa eta adin nagusiko pertsonei laguntzeko programak, kasu soziosanitarioen kudeaketa, belaunaldien arteko programen kudeaketa, laguntzak behar dituzten adineko pertsonei emandako arretari buruzko zenbait alderdi eguneratzea, mendetasun-egoeran dauden adineko pertsonen laguntzaile pertsonalak gaitzea, bizkortze kognitiboa dementzia aurreratuak dituzten pertsonentzat, euskailuen erabilera arrazionala, adinekoei tratu ona ematearen sustapena, etab.

En el marco del convenio suscrito con la Fundación INGEMA se ha llevado a cabo un conjunto de actividades docentes, un total de doce cursos y programas formativos piloto, mediante los que se ha formado a los/as profesionales de servicios sociales en cuestiones muy diversas, tales como la atención centrada en la persona, la intervención social en gerontología y programas de apoyo a personas mayores, la gestión de casos sociosanitarios, gestión de programas intergeneracionales, actualización en aspectos de la atención a personas mayores que necesitan apoyos, capacitación para asistentes personales de personas mayores dependientes, estimulación cognitiva para personas con demencias avanzadas, uso racional de sujeciones, fomento del buen trato a mayores, etc.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren esparruan, sortzeko dago batzorde sektoriala, enpleguko kalitatea eta trebakuntzaren hobekuntza eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza sustatzera bideratua.

En el marco del Consejo Vasco de Servicios Sociales está pendiente la creación de una comisión sectorial orientada a fomentar la calidad en el empleo y la mejora de la cualificación y la formación de las personas profesionales del sistema de servicios sociales.

Profesionalak ez diren zaintzaileentzako prestakuntza-ekintzak baimentzen dira Hobetuz erakundearen lankidetzarekin. 2013. urtean, bi ikastaro gehiago sartu dira katalogoan.

Se autoriza la realización de cursos formativos para cuidadores no profesionales en colaboración con Hobetuz. En el año 2013 se incorporan al catálogo dos nuevos cursos.

Halaber, 2013ko lehen hiru hiletan koordinazio-bilerak egin dira foru-aldundiekin eta EJIE erakundearekin, eta horien xede zehatza izan da, batetik, behar bezala betetzea Mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko Legea, eta, bestetik, datuak behar bezala igortzeko Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Osasun Ministerioaren mende dagoen Autonomiarako eta Mendetasunari Arreta emateko Sistemako informazio-sistemara (SISAAD). 2013. urteko apirilaz geroztik, foru-aldundiek zuzenean igortzen dituzte datuak SISAAD sistemara, Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritzarik gabe.

A lo largo del primer trimestre de 2013 se han mantenido diversas reuniones de coordinación con las Diputaciones Forales y EJIE, concretamente para la correcta aplicación de la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia y la transmisión de datos al Sistema de Información del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SISAAD), dependiente del Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad.. A partir del mes de abril de 2013, la transmisión de datos al SISAAD la han realizado las Diputaciones Forales de manera directa, sin la intermediación del Gobierno Vasco.

Matía gerontologia institutuko Ingema fundazioarekin egin den hitzarmen baten bidez, "Etxean Ondo" izeneko proiektu pilotua abiarazi da Araban; zehazki, Añanako kuadrillako 10 udalerrietan eta ezintasun intelektualak dituzten pertsonentzako bi egoitzatan. Haren helburua da pertsonarengan ardaztutako arreta integraleko eredu bat eta etxeetan koordinazio soziosanitarioa egingo duena sortzea eta aplikatzea, kasuen gestio-metodologian oinarrituta.

Por medio de un convenio con la Fundación Ingema (Instituo Gerontológico Matía) se ha desarrollado, en el Territorio Histórico de Álava -concretamente en los 10 municipios de la Cuadrilla de Añana y en 2 residencias para personas con discapacidad intelectual de la Diputación Foral de Álava-, una experiencia piloto denominada “Etxean Ondo” para el diseño y puesta en marcha de un modelo de atención integral centrado en la persona y de coordinación sociosanitaria en el domicilio basado en la metodología de gestión de casos.

### 3. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA PUBLIKOAREN GARAPENEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILE GUZTIEKIN (ERAKUNDEAK ETA GIZARTE ERAGILEAK) SAREKO LANA BULTZATZEA ETA INDARTZEA

2013ko maiatzaren 3an, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2013ko maiatzaren 2an emandako agindua argitaratu zen. Haren bidez, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituena. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak kudeatzen duen diru-laguntzen ildo honetara (pertsonekiko, familiekiko, taldeekiko eta komunitateekiko gizarte-interbentzioko jarduerak) 497 proiektu aurkeztu ziren, 269 erakunderen aldetik. Guztira,115 erakunderi zegozkien 182 proiektu finantzatu genituen, eta, orotara, 4.438.280 € eman ziren.

2013. urtean, ebaluazio-gidoi bat betearazi zaie bisitatutako 115 proiekturi.

Ebaluazio-prozesu bat egin da, eta, haren baitan, pertsonekiko, familiekiko, taldeekiko eta komunitateekiko gizarte-interbentzioko jarduerak diruz laguntzeko ildoko 143 proiektu bisitatu dira.

Ez da zuzendaritzaren diru-laguntza ekintzaren ondorioz garatzen diren neurrien eraginaren ebaluazio-prozesurik egin 2013an.

Eguia Careaga (SIIS) fundazioarekin egindako hitzarmen baten bidez finantzatzen da gizarte-zerbitzuen dokumentazio-fondoaren eguneratze etengabea, hamabosteroko buletinak egiteko eta banatzeko jarduerak, eta Ikuspegiak gizarte-gaietako behatokietako datuen mantentze-lanak.

Informazio-sistema inplementatzen ari da. Gaur egun, alor hauetako datuak biltzen ditu: mendetasuna, telelaguntza, gizarte-larrialdietako laguntzak eta ezintasunak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua kontsulta eta partaidetzako organo gorena da gizarte-zerbitzuen gai-alorrean, eta, organo horretan ordezkatuta daude, EAEko gizarte-zerbitzuetan eskumena duten hiru administrazio-eremuetako arduradunez gain, erakunde eta elkargo profesionalak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak osoko bilkura bat egin du 2013an, uztailaren 3an.

Haurren sektore-batzordea bultzatu da Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan. Bi bilera egin ditu 2013an, urrian bat eta abenduan bestea.

Ez da ezintasunen batzorde sektoriala eratu.

Ez da eratu enpleguaren kalitatea hobetzera eta gizarte zerbitzuen sistemako profesionalen prestakuntza hobetzera bideratutako batzorde sektoriala.

### 3. PROMOVER Y REFORZAR EL TRABAJO EN RED CON TODOS LOS ACTORES, INSTITUCIONALES Y SOCIALES QUE INTERVIENEN EN EL DESARROLLO DEL SISTEMA PÚBLICO DE SERVICIOS SOCIALES

El 3 de mayo de 2013 se publicó la Orden de 2 de mayo de 2013, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, por la que se efectúa para el año 2013 la convocatoria prevista en el Decreto 271/2012, de 4 de diciembre, por el que se regulan las subvenciones para el fomento de actividades del tercer sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco. A la línea gestionada por la Dirección de Servicios Sociales en esta convocatoria (actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades) se presentaron 497 proyectos por parte de 269 entidades. Se financiaron un total de 182 proyectos correspondientes a 115 entidades, habiéndose concedido un total de 4.438.280 euros.

En 2013 se ha aplicado un guión de evaluación a 115 proyectos visitados.

Se ha realizado un proceso de evaluación, en el marco del cual se han visitado 143 proyectos de la línea de ayudas para actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades.

En 2013 no se ha realizado la evaluación de impacto de las medidas que se desarrollan como consecuencia de la acción subvencional de la Dirección.

A través del convenio de colaboración de la Fundación Eguia Careaga (SIIS) se financia la actualización permanente del fondo documental de servicios sociales, así como la realización y distribución de boletines quincenales y el mantenimiento del banco de datos de los observatorios de asuntos sociales Ikuspegiak.

Se está implementando el sistema de Información. Actualmente contiene datos relativos a los ámbitos de la dependencia, teleasistencia, ayudas de emergencia social y discapacidad.

El Consejo Vasco de Servicios Sociales es el máximo órgano de carácter consultivo y de participación competente en materia de servicios sociales, en el que además de los responsables de los tres ámbitos competenciales en materia de servicios sociales de la CAPV están representadas diferentes entidades y colegios profesionales

En el año 2013 se ha realizado un pleno del Consejo Vasco de Servicios Sociales el día 3 de julio.

Se ha impulsado la Comisión Sectorial de infancia en el seno del Consejo Vasco de Servicios Sociales. En el año 2013 se han realizado dos reuniones,una en octubre y otra en diciembre.

No se ha constituido la Comisión Sectorial de Discapacidad.

No se ha constituido la Comisión Sectorial orientada a fomentar la calidad en el empleo y la mejora de la cualificación y la formación de las personas profesionales dels sistema de servicios sociales.

Osasun-sistemaren eta gizarte-sistemaren arteko koordinaziorako organoa da Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, eta bitan bildu da 2013. urtean.

El Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria es un órgano de coordinación entre el sistema sanitario y el de Servicios Sociales y se ha reunido en el año 2013 en dos ocasiones.

Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 43. artikuluak eta 101/2010 Dekretuko 2. artikuluak arautzen duten moduan, EAEko administrazio publikoen arteko erakunde arteko lankidetza eta koordinazioa egituratuko dituen organoa da. Gizarte-zerbitzuen alorra lantzen du organo horrek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren batasuna bermatze aldera.

El Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, tal y como viene recogido en la Ley 12/2008, de Servicios Sociales (art.43), así como en el Decreto 101/2010 (art. 2), es el órgano que articula la cooperación y la coordinación entre las Administraciones Públicas Vascas en materia de servicios sociales con vistas a garantizar la unidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko organo horrek osoko bilkura bat egin du 2013an, ekainaren 26an.

En el año 2013 se ha realizado un pleno del Órgano Interinstitucional, de Servicios Sociales el día 26 de junio.

4. GIZARTE ZERBITZUETAKO KATALOGOKO ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK EMATEKO ESTALDURAK ATZEMANDAKO LAGUNTZA ESKAERETARA EGOKITZEARI DAGOKIONEZ AURRERA EGITEA, BAITA ZERBITZUEN LURRALDE ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ ERE

4. AVANZAR EN LA ADECUACIÓN DE LAS COBERTURAS DE ATENCIÓN DE LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES DEL CATÁLOGO DE SERVICIOS SOCIALES A LAS DEMANDAS DE ATENCIÓN DETECTADAS, ASÍ COMO EN LA ORDENACIÓN TERRITORIAL DE LOS SERVICIOS

Gorago, 1. puntuan, adierazi dugun moduan, onartzeko dago oraindik Gizarte Zerbitzuen Mapa. 2013. urtean, inbentario bat egin da 2011ko datuekin, eta agiri hori gizarte-zerbitzuen zorroko dekretua, plan estrategikoa eta mapa egiteko prozesuan kokatu behar da, baita horiei lotutako memoria ekonomikoarekin ere. Agiri horrek adierazten du zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko ematen ari diren, haien norainokoa eta zer gastu publiko arrunt bideratzen den haiek emateko.

Como ya se indicó en el punto 1, el Mapa de Servicios Sociales está pendiente de aprobación. En 2013 se ha elaborado un inventario, con datos a 2011, que se enmarca en el proceso de elaboración del Decreto de Cartera, así como del Plan Estratégico y el Mapa de Servicios Sociales, y de la memoria económica vinculada a todos ellos y que indica qué servicios y prestaciones económicas se están ofreciendo y con qué extensión, así como qué gasto corriente público representan.

Zerbitzuen mapak eta gainerako agiriek planari erantsi behar dioten memoria ekonomikoari erreparatuta, esan behar da inbentarioa ezinbesteko tresna dela 2017rako proiekzioak egiteko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema gauzatzeko beharko diren plazak kalkulatzeko eta hark izango dituen finantza-beharrizanak aurreikusteko.

En relación con el Mapa y la memoria económica que deben acompañar al Plan, el inventario resulta imprescindible a la hora de hacer las proyecciones a 2017 y estimar las plazas necesarias para el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales y las necesidades de financiación derivadas del mismo.

5. ZAINTZA RATIOAK ETA/EDO ZERBITZUEN INTENTSITATEA EGOKITZEA INDARREKO ARAUDIRA EGOKITZEKO

5. ADECUAR LOS RATIOS DE ATENCIÓN Y/O LA INTENSIDAD DE LOS DIVERSOS SERVICIOS PARA SU ADECUACIÓN A LA NORMATIVA VIGENTE

Memoria honen 1. puntuan azaldu dira zerbitzuen zorroko dekretuari buruzko alderdiak. Zerbitzu eta prestazioen baldintza materialak, funtzionalak eta pertsonalak ezartzeko bidean, aurrerako urratsak eman dira 2013an ezintasunak dituzten pertsonei zuzendutako zentroen arautze-prozesuan. Horixe bera egin zen, lehenago, adineko pertsonen eta adingabekoen jardun-eremuan.

Lo concerniente al Decreto de Cartera ya fue cumplimentado en el punto 1 de esta memoria. En lo que respecta al establecimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal de los distintos servicios y prestaciones, en 2013 se ha avanzado en la regulación de centros destinados a personas con discapacidad, como anteriormente ya se hiciera con el ámbito de las personas mayores y de las menores de edad.

6. PRESTAZIOAK LORTZEKO TRESNA KOMUNAK APLIKATZEA, EDO, HALA BADAGOKIO, GARATZEA

6. APLICAR O, EN SU CASO, DESARROLLAR LOS INSTRUMENTOS COMUNES DE ACCESO A LAS DIVERSAS PRESTACIONES

Balorazio-tresna komunak aplikatzeko xedea ezarri denez prestazioak eskuratzeko bidean, gizarte-bazterketa baloratzeko tresna osatu da 2013. urtean, eta uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren bidez onartu da. Tresna hori izango da gizarte-zerbitzuen alorreko prestazioak eskuratzeko irizpideak betetzen diren ala ez zehazteko irizpideak harmonizatuko dituena.

En el contexto de la aplicación de herramientas comunes de valoración con vistas al acceso a las prestaciones, en 2013 se ha elaborado y aprobado, mediante el Decreto 385/2013, de 16 de julio, el instrumento de valoración de la exclusión social, que va a contribuir a armonizar el cumplimiento de los criterios de acceso a las prestaciones relacionadas con el ámbito de referencia.

7. GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTROEN ERABILERRAZTASUNA HOBETZEN AURRERA EGITEA

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta gizarte-larrialdietako gizarte-zerbitzuen arteko koordinazio-protokoloak ezartzeko, Zorroari buruzko Dekretuan ezartzen denari erreparatu behar zaio, baina azken hori onartzeko dago oraindik.

8. GENERO IKUSPEGIA PLANA OSATZEN DUTEN EKINTZA GUZTIETAN SARTZEA, GENERO DESBERDINTASUNAK KENTZEKO ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GIZARTE ZERBITZUEN EREMUAN

Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren baitan aurreikusten da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko modulu berariazkoa barneratzea. Gaur egun, lantze-bidean da planaren 2014-2016 eperako eguneratzea

9. SISTEMAREN GAITASUNA HOBETZEA, GIZARTE ZERBITZUETAKO ERABILTZAILEEI LAGUNTZA SOZIAL PERTSONALIZATUA ETA INTEGRALA ESKAINTZEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, BETIERE LAGUNTZA HORREN PREMIA DUENEI

Maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoak, bete egin du gizarte-zerbitzuen alorrean fitxen eta diagnostiko sozialen eredu bateratu bat ezartzeko aurreikuspena.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuentzat interbentzio-eredu komun baten aurreikuspena egin zen, haien funtzionamenduaren oinarrizko irizpideak ezartzeko. Eredu hori 2014an gauzatuko da, baina alderdi jakin batzuetan, hala nola, gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzeko alderdian, jarraibide batzuk eman ditu Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, EAEko udalek antzeko interbentzioak egin ditzaten, azken horiek kudeatzen baitituzte laguntzak, oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez.

10. ZAINTZAILEEI EMATEN ZAIEN LAGUNTZA HOBETZEA

Dibulgaziorako materiala sortu da Etxean Ondo proiektu pilotuaren baitan, zaintzaileek ematen duten laguntza hobetzeko.

11. EKIPAMENDUEN, BEREZIKI EGOITZA IZAERAKO EKIPAMENDUEN, EZAUGARRIAK, DISEINUA ETA KOKAPENA KOMUNITATEAREN IKUSPEGIRA ETA HURBILTASUNAREN, GIZARTE LAGUNTZA PERTSONALIZATUAREN ETA INTEGRALAREN ETA PERTSONAGAN OINARRITUTAKO ZAINTZAREN PRINTZIPIORA EGOKITZEN AURRERA EGITEA

Matia gerontologia institutuko Ingema fundazioarekin

7. AVANZAR EN LA MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD DE LOS CENTROS DE SERVICIOS SOCIALES

El establecimiento de protocolos de coordinación entre los servicios sociales de base y los de urgencias sociales debe hacerse de conformidad con lo que se establezca en el Decreto de Cartera, pendiente de aprobación.

8. INCORPORAR LA PERSPECTIVA DE GÉNERO A TODAS LAS ACCIONES QUE FORMAN PARTE DEL PLAN, AL OBJETO DE ELIMINAR LAS DESIGUALDADES DE GÉNERO Y PROMOVER LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN EL ÁMBITO DE LOS SERVICIOS SOCIALES

La introducción de módulos específicos sobre igualdad entre mujeres y hombres en los programas formativos es una acción contemplada en el marco del Plan Estratégico de Servicios Sociales, cuya actualización para 2014-2016 está en fase de elaboración.

9. MEJORAR LA CAPACIDAD DEL SISTEMA PARA OFRECER A LAS PERSONAS USUARIAS DE LOS SERVICIOS SOCIALES QUE LO PRECISEN UN ACOMPAÑAMIENTO SOCIAL PERSONALIZADO E INTEGRAL DESDE LOS SERVICIOS SOCIALES

Mediante el Decreto 353/2013, de 28 de mayo, de Ficha Social del Sistema Vasco de Servicios Sociales y del instrumento de diagnóstico social del Sistema Vasco de Servicios Sociales se ha dado cumplimiento a la previsión de un modelo de ficha y diagnóstico social unificado para su utilización en los servicios sociales.

Con respecto a la previsión de elaboración de un modelo de intervención común para los servicios sociales de base que oriente sobre sus pautas básicas de funcionamiento, se pospone para su materialización en 2014, si bien, en aspectos concretos, como la gestión de las ayudas de emergencia social, desde la Dirección de Servicios Sociales se han dado pautas para que se produzca una intervención similar por parte de los ayuntamientos de la CAPV, que son los gestores de dichas ayudas a través de sus servicios sociales de base.

10. MEJORAR EL APOYO PRESTADO A LAS PERSONAS CUIDADORAS

Se ha elaborado material divulgativo en el marco del proyecto piloto Etxean Ondo, orientados a mejorar la asistencia prestada a las personas cuidadoras.

11. AVANZAR EN LA ADECUACIÓN DE LAS CARACTERÍSTICAS, EL DISEÑO Y LA UBICACIÓN DE LOS EQUIPAMIENTOS, EN ESPECIAL LOS DE CARÁCTER RESIDENCIAL, AL ENFOQUE COMUNITARIO Y AL PRINCIPIO DE PROXIMIDAD, DE ACOMPAÑAMIENTO SOCIAL PERSONALIZADO E INTEGRAL, Y DE ATENCIÓN CENTRADA EN LA PERSONA

En el convenio de colaboración suscrito con la Fundación

izenpetu den hitzarmeneko alderdi bat da jardunbide egokiak sortzea eta lantzea pertsonengan ardaztutako arreta-ereduak darabiltzaten gerontologia-zentroetako bizikidetza-unitateen inguruan. Arabako Foru Aldundiak eta Ingema fundazioak lankidetza-hitzarmen bat izenpetu zuten 2013ko uztailaren 3an, Etxean Ondo proiektu pilotua lantzeko foru-administrazioaren bi gizarte-baliabidetan: Gasteizko Basoa eta Portal de Castilla egoitzetan.

Ingema (Instituto Gerontológico Matia), se incluye la creación y desarrollo de un conjunto de buenas prácticas en torno a unidades de convivencia en centros gerontológicos que respondan al modelo de atención centrada en la persona. Concretamente, el 3 de julio de 2013, el Departamento firmó un acuerdo de colaboración con la Diputación Foral de Álava e Ingema para desarrollar el proyecto piloto Etxean Ondo en dos recursos forales: las residencias Basoa y Portal de Castilla, localizadas en Vitoria-Gasteiz.

Horrez gainera, hamar lankidetza-hitzarmen izenpetu dira guztira Añanako kuadrillako udalerriekin, arreta soziosanitario koordinatua lantzeko etxeetan, pertsonan ardaztutako arreta-eredua sustatzeko xedea duen Etxean Ondo proiektu pilotuaren baitan. Hitzarmen horien helburua da ikerketak bultzatzea zahartze aktiboaren eremuan, autonomia sustatzea eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta-ereduak indartzea, eta hori guztia ia esperimentalak diren diseinuen eta ikerketa-ekintzak metodologien bidez egitea.

Además, con la finalidad de impulsar el desarrollo de investigaciones en el ámbito del envejecimiento activo, la promoción de la autonomía y los modelos de atención a las personas en situación de dependencia, a través de diseños cuasi experimentales y metodologías de investigación-acción, se han firmado un total de diez acuerdos de colaboración con diferentes muncipios de la Cuadrilla de Añana para desarrollar a domicilio la atención sociosanitaria coordinada, dentro de la experiencia piloto Etxean Ondo, que promueve el modelo de atención centrada en la persona

12. SISTEMAREN KONPLEXUTASUNA MURRIZTEA, BEREZIKI ERABILTZAILEEN IKUSPEGITIK, ESKAEREN IZAPIDETZE ARINAGOA AHALBIDETUKO DUTEN ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO FORMULAK GARATUZ

12. REDUCIR LA COMPLEJIDAD DEL SISTEMA, ESPECIALMENTE DESDE EL PUNTO DE VISTA DE LAS PERSONAS USUARIAS, DESARROLLANDO FÓRMULAS DE GESTIÓN ADMINISTRATIVA QUE PERMITAN UNA TRAMITACIÓN MÁS ÁGIL DE LAS DEMANDAS

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-interbentzioaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan, mantendu eta handitu egin dira laguntzen programa horrek behar duen tramitazio guztia bitarteko telematikoen bidez egiteko aukerak, aukera hori bideratzeko prozedura bat ezarri baita.

En la convocatoria de subvenciones para el fomento de actividades del tercer sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco, se ha mantenido y avanzado en la posibilidad de que las entidades interesadas puedan realizar toda la tramitación que requiere este programa de ayudas de forma telemática, mediante la incorporación de un procedimiento que lo posibilite.

Era berean, kudeaketa telematikoaren atal bat barneratu da telelaguntzako zerbitzu publikoa eskatzeko aukeren artean, jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez jasotzeko aukera ematen baitzaie erabiltzaileei.

Asimismo, en la solicitud del servicio público de teleasistencia también se ha introducido una parte de gestión telemática en la que se da a los usuarios la posibilidad de recibir las notificaciones por vía telemática.

Hori guztia egitean, arau hau bete da: 232/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duena.

Todo ello de conformidad con el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, que regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos.

13. ZERBITZUEN KALITATEA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETU DADIN SUSTATZEA, I+Garen JARDUEREN BITARTEZ ETA JARDUNBIDE EGOKIAK SUSTATUZ KUDEAKETAN ETA ZERBITZUAK EMATEKO GARAIAN

13. PROMOVER LA MEJORA DE LA CALIDAD Y LA EFICIENCIA DE LOS SERVICIOS MEDIANTE LAS ACTIVIDADES DE I+D Y LA POTENCIACIÓN DE LAS BUENAS PRÁCTICAS EN LA GESTIÓN Y LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS

2013. urtean, ebaluazio-gidoi bat betearazi zaie bisitatutako 115 proiekturi.

En 2013 se ha aplicado un guión de evaluación a 115 proyectos visitados.

Ebaluazio-prozesu bat egin da, eta, haren baitan, pertsonekiko, familiekiko, taldeekiko eta komunitateekiko gizarte-interbentzioko jarduerak diruz laguntzeko ildoko 143 proiektu bisitatu dira.

Se ha realizado un proceso de evaluación, en el marco del cual se han visitado 143 proyectos de la línea de ayudas para actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades.

14. GIZA BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA FABORATZEA, PRODUKTIBITATEA HOBETUZ ETA ZAINTZA KALITATE HANDIAGOZ GAUZATZEA AHALBIDETUZ

Zerbitzuak ematen dituzten pertsonak profesionalizatzeko politiken baitan, etxez etxeko laguntzaren alorreko 40 laguntzaile-titulu eman dira, ZITAP, S.L. eta Arabako Laguntza S.Coop. erakundeek emandako ikastaroen ondorioz.

15. GIZARTE LARRIALDIKO EGOEREI ARRETA ESKAINTZEA

Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL): guztira, 17.300.000 euro eman zaizkie udalerri eta mankomunitateei. 2013ko martxoaren 27ko aginduaren bidez arautu ziren laguntza horiek.

Horrez gainera, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2013ko abenduaren 18an emandako aginduaren bidez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) programaren kreditua 2009an handiagotzera zuzendutako 2 milioi euroko ezohiko partida esleitu zaie Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta mankomunitateei.

16. ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUAK EMATEN ESKU HARTZEN DUTEN PERTSONA GUZTIEI LAN BALDINTZA EGOKIAK EMAN DIEZAZKIETEN SUSTATZEA, INGURUNE IRAUNKOR BATEAN

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ituntze-araubidea arautzeko dekretu-zirriborroa egin da, eta hura onartzeko tramiteekin jarraitu da; hala ere, gai-alor horretan Europatik 2014rako iragarri diren aldaketen zain dago prozesua, arauaren behin betiko testua baldintza baitezakete aldaketa horiek.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren esparruan, sortzeko dago batzorde sektoriala, enpleguko kalitatea eta trebakuntzaren hobekuntza eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza sustatzera bideratua.

17. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA GARATZEKO BEHARREZKOAK DIREN BARNE EGITURAK FINKATZEA

2013ko martxoaren 8an argitaratutako aginduaren bidez, erakunde publikoek esku-hartze sozialaren esparruan teknikariak eta/edo administrariak kontratatzeko eta jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko oinarriak onartu ziren.

Errefortzuko langileak kontratatzeko, 3.126.149,00 euro eman zitzaien, guztira, 94 udalerri eta mankomunitateri.

Eguia Careaga (SIIS) fundazioarekin egindako hitzarmen baten bidez finantzatzen da gizarte-zerbitzuen dokumentazio-fondoaren eguneratze etengabea, hamabosteroko buletinak egiteko eta banatzeko jarduerak,

14. FAVORECER UN APROVECHAMIENTO DE LOS RECURSOS HUMANOS, MEJORANDO LA PRODUCTIVIDAD Y POSIBILITANDO UNA MAYOR CALIDAD DE LA ATENCIÓN

Como políticas activas de profesionalización de las personas prestadoras de servicios, se han emitido 40 títulos de Auxiliar de Ayuda a Domicilio correspondientes a los cursos impartidos por ZITAP, S.L. y Arabako Laguntza S.Coop.

15. ATENDER A SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL

Ayudas de emergencia social (AES): se ha concedido un total de 17.300.000 euros a municipios y mancomunidades. Fueron reguladas mediante la Orden de 27 de marzo de 2013.

De manera adicional, mediante la Orden de 18 de diciembre de 2013, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, se asignó entre los distintos ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la partida extraordinaria de 2 millones de euros destinada a la ampliación de crédito del programa de Ayudas de Emergencia Social (AES), en el año 2013.

16. PROMOVER UNAS CONDICIONES LABORALES ADECUADAS, EN UN ENTORNO SOSTENIBLE, A TODAS LAS PERSONAS QUE INTERVIENEN EN LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS SOCIALES DE RESPONSABILIDAD PÚBLICA

Se ha elaborado un borrador de decreto por el que se regula el régimen de concierto del Sistema Vasco de Servicios Sociales y se han continuado los trámites para su aprobación, si bien queda a la espera de los cambios que se anuncian en esta materia desde Europa para comienzos de 2014, que pueden condicionar el texto definitivo de la norma.

En el marco del Consejo Vasco de Servicios Sociales está pendiente la creación de una comisión sectorial orientada a fomentar la calidad en el empleo y la mejora de la cualificación y la formación de las personas profesionales del sistema de servicios sociales.

17. AFIANZAR LAS ESTRUCTURAS INTERNAS NECESARIAS PARA EL DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

Por Orden de 8 de mayo de 2013 se aprobaron las bases para la concesión de las ayudas económicas para la contratación de personal técnico y/o administrativo y para el desarrollo de actividades por parte de las instituciones públicas en el ámbito de la intervención social.

Para la contratación de personal de refuerzo se subvencionan 3.126.149,00 euros a un total de 94 municipios y mancomunidades.

Mediante el convenio de colaboración de la Fundación Eguia Careaga (SIIS) se financia la actualización permanente del fondo documental de servicios sociales, así como la realización y distribución de boletines

eta Ikuspegiak gizarte-gaietako behatokietako datuen mantentze-lanak.

quincenales y el mantenimiento del banco de datos de los observatorios de Asuntos Sociales Ikuspegiak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema arautzeko dekretu-zirriborro bat egin da, eta hura onartzeko tramiteak abiatu dira; hala ere, lehen aurreratu den moduan, sistema horren eta foru-aldundietako sistemen arteko elkarreragingarritasuna bermatu nahi da prozesu hori burutzeko.

Se ha elaborado un borrador de decreto por el que se regula el Sistema Vasco de Información de Servicios Sociales y se han iniciado los trámites para su aprobación que, como ya se adelantó, queda condicionada a la previa garantía de la interoperabilidad entre ese Sistema y los de las Diputaciones Forales, aún por determinar.

